

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak ongi kontrolatu beharreko kontuak dira, jarduerak eramaten baitute enpresa aurrera behar den moduan. Gure enpresak izango lituzkeen funtsezko jarduerak zeintzuk diren argitu aurretik ordea, horiek zer nolako onurak ekarri beharko lekizkigukeen aztertzea izango litzateke egokiena. Horrela, jakina da, jarduera horiek gure balorezko proposamena garatu beharko luketela, hau da, geure helburu guztiak garbi bete daitezzen ekintzak egin beharko liratekeen. Modu berean, lanean fin arituz, bezeroekin harreman atsegin eta lagunkoi bat eskuratzea ere ezinbestekoa izango zen enpresak arrakasta eder bat lortzeko. Eta noski, jarduera guzti horien emaitza zifratan ikusgai izatea izango litzateke geratuko zen indargarri bakarra eta azken finean denetan garrantzizkoena, proiektuarekin aurrera joan eta gozaten jarraitu ahal izateko.

Hori guztia jakinik, geure enpresak zein jarduera egiten dituen jakitea oso erraza dela baieztatu dezakegu. Izan ere, Golaiaren funtsezko jarduera produkzioan oinarriturik dugu, bertan egiten baitira, jostailu zahar eta izorratuen beharrezko konponketak, itxura traketsetik berriz ere goitik beherako berritua emanda, merkaturatzeko. Baina,



produktu horiek birsortzeko noski, kantitate zehatz batzuk behar izaten ditugu, horiek jendearen baita beti ere. Horregatik, beti ez genuke lan karga berbera izango, boladak izango ziren seguruenik, non batzuetan geuk ipiniko biltegiak gainezka topatzeko aukera izango genukeen, eta beste batzuetan aldiz ia utxik aurkitzekoa. Afla, geure lantaldeak ez luke lan egoera berbera izango momentu guztietan, Andreik esaterako jostailu zahar horien beharra edukiko luke bere

betebeharrak, hau da, diseinu kontu horietan behar bezala murgildurik lan egiteko. Horretxegatik, momentu horretan bertan aldatuko egingo luke bere egitekoa eta beste bati ekin, taldekideei lagunduaz edo.

Garbi izan beharko genukeen beste kontu bat zera da, geure enpresak arazoak konpondu ere egiten dituela, bere jarduerak ez daudela produkzioan soilik oinarriturik. Aizken finean Golaiaren helbururik nagusienetakoa, horrenbeste aipatu dugun laguntzearen kontu hori da, hala ez balitz, ez baikenituzke eta beste inongo jarduerarik aplikatuko. Esan genezake, funtsezko bi jarduera mota horiek bateratuta joango liratekeela. Aizken batzuek, ez lukete besteei arazoak konpontzeko bezain bestekoa denik esango, baina ongi pentsatzen jarrita, uste baino indar handiagoa du faktore horretan. Ez duzue ba esango besteei irribarrea ateratzea ez denik arazo bat konpontzea, zeren eta, egon litekeen ekintzarik politena dela esango nuke. Egia da, hori

lortzeko era asko egon litezkeela, eta bat baino gehiago zuzenak, baina jendeak jostailu berriak askozaz ere merkeago lortzeko aukera izate hori, baino modu ederragorik ez dagoela uste dugu, denok izaten baitugu azken finean, kapritxoren bat edo beste geure buruetan.